




OÑATIKO SAN MIGEL ERROTA



ñatiko San Migel errota San Migel monasterioaren jaun-ondasunen zati zen, eta bere patroio laikoek, alegia Oñatiko Kondeek hamarrenak jasotzeko eskubidea zuten. XV. mendean, gutxienez hiru errotaren jabe ziren, bailaran zehar zeudenak, Olaldekoa, (herriko familia ahaltsu bati saldua: Lazarragatarrak), Linatziarkoia eta San Migel errota; azken bi hauek 1440an eta 1432an agerietan jasota agertzen dira hurrenez hurren. Jaunaren nekazariak eta beraien lursailak edo etxeak monasterioaren lurretan zituztenek derrigorrez San Migel errotara joan beharra zuten ehotzera. Jaunaren eskubide hau zama handia zen nekazariarentzat, horregatik egin zioten aurre, bai desobedientziaz eta bai auzitan arituz. Kasu honetan, Kondearen instalazioetan ehotzeko obligazioaren aurkako lehen auzia 1482koa da, 1583an, 1627an, 1658 eta 1741ean behin eta berriro berrekinez. Gai honen inguruan, nekazariaren eta Kondearen arteko azken hitzarmena 1787a arte egon zen indarrean. Mende horietan zehar ehotze-eskubidea eta kondeek hamarrena jasotzeko zuten eskubidea lotuta egon ziren, elizaren patroio izateagatik.



XIX. mendean zehar jarraitu zuen lanean errotak baina gero eta larriago, ez jaun-ondasun erara, kondeen jabetza pribatu gisa baizik. 1899an industria erroldan ez da agertzen, horregatik pentsa daiteke lanari utzia zela, baina eutsi egin zion egitura hidraulikoari eta beste industria mota batean erabilgarria zen. San Migel errotaren kanaleko uraren aprobetxamenduak hainbat arazo eta eragozpen eragin zituen XVIII. eta XIX. mendeetan, izan ere herri guneko etxe eta ortutan zehar baitzihoan, baina mesedegarri ere izan zen. Santa Anako mojek, esate baterako, ortuan erabiltzen zuten ur hori eta irabazi handia zekarren horrek, baina tarteka arazoak ere izaten zituzten, 1773an jasan zuten uholdea kasu, ubidean tapoia sortuz urak gainezka egin baitzuen komentuarien eraikinaren gainetik. San Migel errotak izan zuen beste erabilera bitxi bat ere,

hain zuzen Lekunberrin zegoen "Baiñuetxe" bati ura ematearena. XIX. mendearen erdi aldera arte jardun zuen hark, zehazki 1859an hiru bainuontzi zituen.



1905ean Santa Ana Komentuko mojek erosi egin zioten San Migel errota Juan Gordoia y Perea jaunari; berak hilabete batzuk lehenago erosia zion Oñatiko Kondesaren ahalduari. Berrikuntza lan garrantzitsuak egin ziren 1923 eta 1926 artean ubidean eta turbina berria jarri zen; 1929an lehengo San Migel errota "aroztegi-zerrategi" gisa ari zen lanean. Horretan, beste errota askoren biderei jarraitu zion, izan ere XX. mendearen lehen hamarkadetan, egitura hidraulikoaz baliatuz zerrategi edo eta zentral elektriko txiki bilakatu baitziren. Hasiara batean zerrategiak indar hidraulikoarekin bakarrik ziharduen, baina gero argindarraren laguntzarekin. Turtikinak 1960an

funtzionatu zuen azken aldiz urarekin. Oñatiko Udalak 1983an erosi zion Santa Ana komentuari San Migel errota izandakoa eta 1997an bertan etxebizitzak egiteko behera bota zen, etxeban irina egiten zen garaiko aztarna arkeologikoak mantenduz.

San Migel errota-museoak jatorrizko elementuak ditu batetik, beste toki batzuetatik ekarritako pieza ere bai eta multzo hori osatze aldera, jatorri ezberdinetako ereduak kasu eginez, elementu berriak ere egin dira.



Jatorrizko elementu gisa azpimarratu beharrekoak dira kokapena eta asmakuntzaren egitura orokorra: aldapara edo errota mugiarazteko erabiltzen zen ura biltzeko deposituak iraun egiten du, nahiz ubidea edo kanala desagertu egin den. Bistan dago irina egiten erabili zen azken errotarria nahiz eta hautsita dagoelako ezin izan diogun probetxua atera.

Artoa ehotzeko harriak eta bere turbina, eta harriak aldatzeko garabi-besoa Bergarako Narbaizabolu-Goikoa errotatik ekarritakoak dira, baita gariarentzakoak ere. Zurezko turtikina hondatuta zeukatenez, pago zurez berregin da, jatorrizkoaren kopia eran.




Toberak edo kaxak, kono alderantzikatuen itxuran, berriak egin dira Lastur-ko (Deba) Lastur-Goikoa errotakoak erudutzat hartuta; tobera horietan biltzen da harrira jausi aurretik irin bihurtuko den alea.

Ehoketaren prozesu osoa ikusi ahal izateko, ehotarrien multzoetako bati gainean duten kaxa kendu zaio. Era berean, turtikinaren funtzionamendua indarrez ardatzak eta harriak biraka jarritz alea ehotzeko era azaltzen duena.



EL MOLINO DE SAN MIGUEL DE OÑATI

El molino de San Miguel de Oñati pertenecía al complejo señorial del monasterio de San Miguel, sobre el que sus patronos laicos, los Condes de Oñate, poseían el derecho de percepción de diezmos. Éstos poseían en el siglo XV, al menos, tres molinos ubicados en el valle, los de Olalde (vendido a otra poderosa familia local: los Lazarraga), Linazibar y el de San Miguel, estos dos últimos citados documentalmente por primera vez en 1440 y 1432 respectivamente. Al molino de San Miguel tenían la obligación de acudir a moler los labradores del señor y los que tuviesen sus tierras y casas en suelo propiedad del monasterio. Este derecho señorial suponía una pesada carga para los campesinos, por lo que procuraron hacerle frente bien desobedeciéndolo, bien pleiteando contra él. En este caso, el primer pleito contra la obligación de moler en las instalaciones del Conde se remonta a 1482, reabriéndose sucesivamente en 1583, 1627, 1658 y 1741. La última concordia entre campesinos y el Conde por este motivo estuvo vigente hasta 1787. Durante estos siglos el derecho de molienda estuvo vinculado al derecho que tenían los condes de percibir el diezmo, como patronos que eran de la iglesia.



A lo largo del siglo XIX el molino siguió trabajando de forma cada vez más precaria, ya no de forma señorial, sino como propiedad privada de los condes. En 1899 dejó de figurar en la matrícula industrial, de lo que se deduce que había dejado de funcionar pero seguía manteniendo su estructura hidráulica, por lo que podía ser aprovechado para otro tipo de industria. La utilización del agua que fluía por el canal de San Miguel en los años finales del siglo XVIII y a lo largo del XIX al pasar este por zonas habitadas de casas y huertas, provocaba molestias y dificultades, pero también aprovechamientos. Las monjas de Santa Ana, por ejemplo, usaban las aguas del canal en su huerta, lo que les reportaba no poco beneficio, pero también les traía en ocasiones algunos problemas, como la inundación que sufrieron en 1773 al taponarse el cauce y desbordar las aguas sobre el edificio del convento. Otro uso curioso de las aguas del molino de San Miguel fue el de servir para alimentar una "Casa de baños" en Lekunbarri. Funcionó a mediados del siglo XIX, en concreto en 1859 con una instalación de tres bañeras.



En 1905 las monjas del Convento de Santa Ana compraron el molino de San Miguel a Juan Gordo y Perea, el cual lo había adquirido pocos meses antes al apoderado de la Condesa de Oñate. Entre 1923 y 1926 se hicieron importantes obras de reforma en el cauce y se instaló una nueva turbina y en 1929 el antiguo molino de San Miguel estaba trabajando ya como "carpintería-serrería". En esto no hizo sino seguir el mismo camino que otros muchos molinos que en las primeras décadas del siglo XX aprovecharon su estructura hidráulica para convertirse en serrerías o en pequeñas centrales eléctricas. Inicialmente la sierra funcionaba exclusivamente con energía hidráulica, luego se complementó con la eléctrica. La turbina dejó de funcionar con agua en 1960. En 1983 el Ayuntamiento de Oñati adquirió el antiguo molino de San Miguel al convento de las monjas de Santa Ana y en 1997 fue éste derribado para construir un edificio de viviendas, en cuya planta inferior se mantuvieron los restos arqueológicos que quedaban de la explotación harinera.

El molino-museo de San Miguel guarda elementos originales, ha incorporado piezas de otros lugares, y para completar el conjunto se han fabricado algunas nuevas siguiendo modelos de diferentes procedencias.



Conviene resaltar como elementos originales la localización y la estructura global del ingenio: la "aldapara" o depósito que recogía el agua destinada a mover el molino permanece, aunque el cauce conductor o canal ha desaparecido. Permanece visible, aunque por hallarse partida no se ha podido aprovechar, la última piedra harinera que se utilizó en el molino.



Las piedras que molían maíz y su correspondiente turbina de hierro, así como las destinadas al trigo, y también el pescante para cambiar las piedras, provienen de Narbaizabolu-Goikoa, de Bergara. La turbina de madera, que estaba estropeada en el mencionado molino, ha sido reconstruida en madera de haya, como réplica de la original.

En cuanto a las tolvas o cajas, en forma de cono invertido, donde se echa el grano que caerá a las piedras para convertirse en harina, han sido realizadas tomando por modelo las del molino Lastur-Goikoa, de Lastur, Deba.

Con el fin de que se pueda observar el proceso completo de la molienda, se ha privado a uno de los juegos de piedras molederas de la correspondiente caja que las cubre. Queda asimismo el funcionamiento de las turbinas que, movidas por el agua, activarán los ejes y las piedras giraderas que molerán el grano.